

BALOREZKO PROPOSAMENAK

- **Konpontzen dugun arazoa:**

Gazteei lokalak bilatzeko, aurkitzeko, jabearekin kontaktuan jartzeko eta ordainketa lanetan informazio gehiago izateko laguntza ematen diegu. Gure zerbitzuak izugarrizko garrantzia duela uste dugu, gure inguruko gazte talde gehienok lokala alokatzeko asmoa dutelako, baina zailtasun handiak dituzte inmobiliaria edo alokairu arloan ezjakintsuak direlako.

- **Bereizten gaituena:**

Besteengandik bereizten gaituena da gazteek ez dutela zertan herritik zehar joan behar lokalak bilatzen, zenbaki guztietara deitzen, ezezkoak jasotzen etab. Geure aplikazioan, eskuragarri dauden lokal guztiei buruzko datu guztiak eskainiko ditugu. Noski, lokaletan espezializatuta gaudenez zerbitzu fidagarrienetarikoa eskaintzen dugu arlo honetan. Adibidez lokalaren uhezaba alokairu oso altua eskatzen badu , lokal horretan interesatuta dauden gazteei negoziatzeko aholkuak ematen dizkiegu. Horrez gain, gure aplikazioa dohain instalatzerakoan argazki, bideo, informazio, prezio eta bestelako informazio guztia eskuragarri dute, argi dago ere, edozein zalantza izan ezkeru mezu bat bidaliz edo telefonoz deituz bezeroen zalantza guztiak argituko ditugu.

